

MANTENIMENDU BURUA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA

Kontrol iraunkorra eta zaintza-lanak egitea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren instalazioen eta makinen funtzionamendu eta kontserbazio-egoera ona bermatzeko.

Obra zibil, urbanizatze eta eraikgingintzako proiektuak koordinatzea eta gainbegiratzea, hala nola askotariko instalazioak, segurtasunekoak eta suteen kontrakoak barne.

EGINKIZUN AZALPEN ZEHATZA

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako instalazioen eta makinen funtzionamendua ona dela kontrolatzea.
- Instalazioen eta makinen prebentzio-mantentzeak programatzea, eta mantentze-langileak edo enpresa kontratista zuzentzea.
- Mantentze zuzentzaileak ezartzea, eta mantentze-langileak edo enpresa kontratista zuzentzea.
- Mantentze-langileak edo enpresa kontratista gainbegiratzea.
- Ur, elektrizitate, erregai eta abarren hornidura zaintzea.
- Aipatu lanetarako lan-arriskuen prebentzioko neurriak ezartzea.
- Mantentze-lanetarako behar den materialaren erosketa kudeatzea eta ordainagiriak egiaztatzea.
- Industria Ordezkaritzak instalazioak ikuskatzeko egindako bisitei harrera egin eta arreta eskaintzea, baita hornitzaileei eta horien ordezkarierei ere.
- Harrerak sinatzea, bai behin-behinekoak, bai behin betikoak, Ikastegiaren ordezkari teknikoa den aldetik erakunde autonomoaren instalazioetan egin diren obra zibil berrietan.
- Proiektu bakoitzak fase bakoitzean izandako aurrerapenak dokumentuetan bildu eta formalizatzea, amaierako dokumentazio guztia barne, horretarako datu-base batean.